



Jose Ignazio Ansorena

♦ TXISTULARIA

Adibidez, ur ardoa

HAURRAK GINELARIK, egunero bazkaltzeko garaian ur ardoa jartzen ziguten basoan: bi zentimetro ardo eta ura ertzeraino. Ez gara denak alkoholiko atera ezta guztiz tontoak ere. Baina egun eskandalua litzateke.

Adibidez, jolas askotan *matea* ematen genion elkarri. Alegia, hutsa egindakoak hobe zuen ziztu batean jolastokitik alde egitea. Bertan geratu bitartean beste lagun guztiek egurtzeko eskubidea zutelako. Kupidarik gabe egiten genuen. Egun, ordea, erreformatorio-rako atea zabalik genuke.

Ez dut maite “gure garaiak” aipatzean soilik haur edo gazte sasoia izatea gogoan. Bizi garen bitarteko guztiak dira gure garaiak eta, osasuna dudan bitartean, gerra ematen jarraitzeko asmotan nago.

Arbuiatzen dut garai haiek egungoak baino hobeak zireneko burutapena. Badut, ordea, errezeloa hainbat arlotan, basakeria batzuk ekiditearren, sozie-

tatean inozokeria aldera errazegi lerratzen ari garela azken urteetan.

* * *

Lagun pedagogo batek, bere lanaz, *pedaboboa* dela esaten du. Adibidez, maiz aipatzen du horren argigarri: haurrentzako merkatuan salgai dauden ikuskizun *pedagogiko*, deituraz, gehienek txarrera hezten dituztela gure txikiak. Izugarritzko soinu bolumen ozena erabiltzen, esaterako. Kontu antipedagogikoagorik!

Solidaritate publikoa eskatzeko ugaltu den eredu hainbat bide beretik. Halako gaixotasunari laguntzeko dirua bildu nahi eta, adibidez, denak berdez pintatu behar geure buruak, ipurtzuloan arrosa jarri, argazkia egin eta sare sozialetan hedatu.

Aurrenik humanitatearekin izan behar solidario. Pertsonen adimenarekin ere bai. Bestela helburuak (diru batzuk biltzea kasu) bitartekoak zilegitzen dituela pentsatzea bezala da. Eta bitartekoak *babuak* direnean, babuerietara beste inora ez dago iristerik.

* * *

Adibidez, orain gutxi ikusi dugu Siriako iheslarien arazoa. Hildako umearen argazkiak edo hungariar kazetari *malaputaren* irudiek eragin handiagoa izan dute, aurreko urte osoko informazioak baino. Zoriturrez, kea bezala desagertuko da kezka soziala ere.

Azti ibili beharra dago. Asmo onenez zabalduta-koak kaltegarri eta beti prest dauden orojaleen mesede bihur daitezkeelako. Adibidez, oraintxe esan du Frantzisko Aita Santuak: “Ez zaie ideiei zerbitzatzen, pertsonen baizik”. Ederra. Baina pertsonen ongi zerbitzatzeko, ideia egokiak behar dira. ■

Lagun pedagogo batek, bere lanaz, “pedaboboa” dela esaten du. Adibidez, maiz aipatzen du horren argigarri: haurrentzako merkatuan salgai dauden ikuskizun “pedagogiko”, deituraz, gehienek txarrera hezten dituztela gure txikiak. Izugarritzko soinu bolumen ozena erabiltzen esaterako. Kontu antipedagogikoagorik!

gure artean euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko, Geure modura.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

www.bizkaia.net

